

- Kataluniako prentsa -

‘El Punt’ xumeak ‘Avui’ mitikoa erosi zueneko


Albiste garrantzikoak gertatu da Kataluniako prentsan: *El Punt* egunkariak *Avui* erosi du. Informazio lokaleko egunkari xume periferiatarrek bereganatu du katalanismoaren ikurretakoa den periodiko sakratua. Duela 20 urte inork ez zuen horrelakorik pentsatuko.

Pello Zubiria

ORAIN DELA 19 URTE bisitatu nituen bi egunkariak, 1990etik 1991rako neguan, *Euskaldunon Egunkariaren* hasierako hilabeteetan. Kataluniako egunkariekin harremanetan hasi nahi genuen. *Avui* egunkaria interesatzen zitzaigun nagusiki, hura baitzen hemen sarritan aipatzen zen eredu, baina Gironan lekuko informazioan zentratuta egiten zen *El Punt* izeneko bat bazela ere entzuna genuen.

*Avui*a joan nintzen estreina, Bartzelonako erdiguneko egoitzara. Nire penarako, hango zuzendaritzakoekin harremana zuen norbaitek hemendik aurkezturik joan nintzen arren, bilera labur batean hasi eta bukatu zen afera. Eguna edukiko zuten halakoa, edo gure ustez kristoren balentria zen euskarazko lehenbiziko egunkariaren kontuak ez zien izugarritzako kilimari eragin. Ezta kafe bat ere.

Biharamonean Gironara jo nuen. Aurrez telefonoz hitzordua hartua nuen *El Punteko* zuzendariarekin, besterik ez, horra zein zen gure arteko elkar ezagutza. Nire pozerako, atetik sartu ahala gerenteak egin zidan harrera lehenbizi eta zuzendariak gero. Erredakzioa goitik behera erakutsi zidaten, sistema informatikoa ere bai, egunkariaren eskualdekako planteamendua esplikatu, kudeaketaren zer-



Goiko irudian, *El Punteko* erredakzioa (Girona). Behean, *Avui*-ko langileak (Bartzelona).

tzeladak eman... Euskal Herrian sortu zela entzuna zuten egunkari berriak hamaika galdera egin zitaten. Ondoren, bazkaritara eramain ninduten. Eta harpidetzen kontua atera zenez mahaian –askok mesprexatu egiten zuten garai hartan hemen harpidetza sistema baina *Euskaldunon Egunkariaren* horretan ere zentratu beharra ikusten zen– bazkalondoan zuzendariak harpidedunen arduradunarengana bidali ninduen, eta honek haien banaketa-

sistemaren barrunbeak erakutsi. Bisita hartan maitemindu nintzen Gironaz –hiriburuz eta probintziak– eta geroztik senidetzat dauzkat *El Puntekoak*.

Orduan kontatu zidatenez, *El Punt* 1974an sortu zen apaizen esku aldizkari moduan, eta egunkari 1978an bihurtu, jabegoa Joan Bosch industrialak harturik. Katalan hutsezko informazio lokalean oinarrituta, Gironako eskualde bakoitzean edizio bana plazaratuz, laster hartu zion gaina Francoren garaietatik indarrean zegoen *Diario de Girona*; hau gero jabeek *Diari de Girona* bataiatu zuten eta azkenerako *El Puntekin* kompetitzeko gaztelanatik katalanera aldatzera behartuta aurkitu ziren.

Kataluniako politikagintzan itzal handirik izateko pretentsiorik ez zuen *El Punt* hark, helburu nagusia Girona zen bere eremuan nagusi izatea zuenak, 1990erako asteroko gehigarri bat bazeukan, *Presència* izeneko, magazine motakoa, gaur oraindik badaukana. *Presència* erabili zuen ordurako Katalunian zeuden beste herri egunkari batzuekin elkarlanean hasteko, batzuk bere egituran integratzeraino.

El Punt garai hartan Gironatik kanpo zabalteko lehen urratsak ere ematen hasia zen. Bartzelonako probintzian eskualdeka hasi zenean, oker ez banago Maresmetik abiatuta. Gogoan dut *El Punteko* zuzendariak mahaian marraztu zidanean nola ari ziren hedatzen eta Bartzelona hiriburuan ez zutela muturra sartu nahi, hura beste mundu bat zelako, broma tonto bat egin niola esanez Mao Zedongen estrategia gogoratzen zidala: hiriburua nekazalguneeetatik –periferiatik– inguratu eta azkenean konkistatu.

Geroztik Katalunia osoan zabalduz joan dira *El Punt* edizioak. Valentzian beren hizkuntzako prentsa egunerokoa edukitzeko

Duela hogeit hamar urte ez zuen imajinatuko Gironan Joan Bosch ugazabaren anaia Jordi gerenteak zuhur eta zorrotz kudeatutako *El Punt* sotil hark Kataluniako prentsaren eta kulturaren harribitxi erakusgarrienetakoa zen *Avui* bereganatuko zuenik

ahaleginean ari diren militante askorentzako ere hura zen azken urteotan erreferentzia. Berandu bada ere, Interneten sartu zuen muturra, Vilaweben eskutik. Aldiz, gero eta nabarmenago sentitzen zen Bartzelona hiriburua zela esku hartu gabeko eta beharreko gune nagusia. *Avui* erostearekin, ate handitik egin du sarrera.

Duela 20 urte inork ez zuen imajinatuko Gironan Joan Bosch ugazabaren anaia Jordi gerenteak zuhur eta zorrotz kudeatutako *El Punt* sotil hark noizbait Kataluniako prentsaren eta kulturaren harribitxi erakusgarrienetakoa zen *Avui* bereganatu ahal izango zuenik. Baina duela 20 urte inork ez zuen ere pentsatuko egun batean *Avui* ataskatuta geratuko zela errotatiba zaharra eraitsi eta berria antolatzeke prozesuan, bidean sinepsi ezinezko mailaraino zorputuko zela, hura bideratzeko sortutako enpresa berrian sozio izango zirela Generalitateaz gain (%20arekin) *La Vanguardia* egunkari kontserbadora eta Planeta editoriala, %40narekin. *La Razón* ultraeskuindarraren argitaldaria den

Planeta bera, bai...

Orain plazaratu denez, *El Puntek* hiru milioi eurotan erosi omen du *Avui*. Ez dakit inbertsio horretaz gain zenbateko zorra hartuko zuen bere gain. *Avui* paperezko egunkaria bereganatu du eta haren Interneteko gunea ere bai, Kataluniako lagun batzuek iazko udan kontatu zidatenez hango gazte abertzaleen artean garrantzia berezia omen duena. Lagun horiek kezkatuta zeuden *Avui* osorik itxiko zutelakoan, Planetak negoziotik atera nahi zuelako eta *La Vanguardiak* berriz laster katalanezko bertsioa plazaratu nahi duelako –aspalditik *El Periodiok* egiten duen moduan edizio bikoitza eginez–. Ez dira haserre izango albiste berria jakinda. n

ZIO

- ZIENTZIA
- IRAKURLE
- ORENTZAT
-
-
-

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbizua 2003ari abiarazitako ekimen da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundaren laguntzari esker urterik urte esatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzeko dira adonoren esku.

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia